



JON URIBE / ARGAKZI PRESS

«Buruko nahasmendu gehienek ez dute loturarik portaera biolentoekin»

Enrique Etxebarua • Psikologia klinikoko katedraduna EHU

‘Zer erlazio dago indarkeriaren eta buruko nahasmenduen artean?’ galdera artegagarria izaten da gehienetan, eztabaida arazotsu askoren motiboa ere bai sarri askotan; heldu den astean, erantzuten saiatuko dira EHUren udako ikastaro batean. Etxebarua egon du koordinazioa.

Arantxa Iraola Donostia

Ur handitan sartzea eskatzen du portaera biolentoen eta buruko nahasmenduen arteko harremana aztertzeak, eta bidea lohitu gabe egitea zaila da. «Hitzak oso ondo neurtu behar dira», alitortu du Enrique Etxebarua (Donostia, 1951). Psikologia Klinikoko katedraduna da EHU Euskal Herriko Unibertsitatean, sona handikoa aditua alorrean. Unibertsitatearen udako ikastaroen barruan heldu den astean egingo den Zer erlazio dago bortxaren eta buruko nahasmenduen artean? ikastaroaren artxiduna da.

Itaun bat hautatu duzu ikastaroari izena jartzeko. Izan ere, auzi zaila da, ezta? Balaiztapenen gainetik itaunak sortzen ditu...

Bai, hasiera batean, ikastaroa proposatu nuenean, Bortxa eta buruko nahasmenduak izena jar zezakeen pentsatu nuen; gero ulertu nuen bien arteko lotura egitea zekarrela horrek, eta ez zela zuzena. Zuzenagoa iruditu zitzaizkidan galdera baten bidez egitea.

Izan ere, buruko gaixok irmo ari dira buruko eritasunak eta portaera biolentoak lotzen dituzten ikuskeren aurka. Gaixoen gaineko estigma handitzen duen zioetako bat dela diote...

Buruko nahasmendu klase asko daude; egiten diren kalkuluen arabera, populazioaren %20ak edo %25ak izango du uneren batean halakoren bat. Nahasmendu gehienek, ordea, ez dute loturarik portaera biolentoekin. Zenbait nahasmendutan ager daitezkeen arazo klaseak dira: zenbait baldintza zehaztetan, galnera, kasurik gehienetan. Aldiz, buruko nahasmendu askok dakarte eriek biolentzia jasateko arrisku handiagoa izatea: halakoen aurrean pertsona kalteberragoak izatea. **Portzentajeaz mintza daiteke? Zenbat portaera biolento dira buruko eritasunen ondorio?**

Oso zaila da jakiten. Ikerketa asko daude, baina lagin aski ezberdinekin eginda daude horietako asko. Ikerketa bat bada oso ezaguna, Jeffrey Swansonek egindakoa: horren arabera, buruko nahasmendurik gabeko pertsonen %2k dituzte portaera biolentoak; buruko gaiztarrak dituzten artean berriak, zehazki eskizofrenia paranoideaz ari zen portaera biolentoren bat izan zezaketan %8 zirela ondorioztatu zuen. Adierazi zuen portaera horiek ager zitezkeela, bereziki, pertsona horiek alkohola eta drogak kontsumitzen bazituzten, eta tratamendu egokirik ez bazuten jarraitzen.

Zein motibok areagotzen du buruko gaixo larri batek portaera biolentoak izateko arriskua?

Arazo larri bat da, esaterako, pertsonak gaitza ukatzea, eta tratamendurik ez hartzea. Aintzat hartu behar den beste faktore bat da pertsona horrek aurrez erasorik eragin duen; iraganak etorkizuna aurreikusten laguntzen du hala koetan. Eldarnioak dituzten pertsonak ere adierazteko behar zaie; bereziki, pertsegizten dituztela sentitzen dutenean. «Hortik zelatan ari zaizkit», «Horrek hil egin nahi nau»... Badira halako eldarnioak izaten dituzten pertsonak, eta bortxa defentsiboa ingurukoel aurre egiteko erabil dezakete. Baina gauza horiek, oro har, tratamendurekin kontrolatzen dira. Familian edo gizartearen gaixokoa baktuta ez egotea ere garrantzitsua da: baktuta dagoenak ingurukoengoz gogotasunaren falta izango du, eta tratamenduari atxikitzea ere zailagoa da horrela. Eta, azkenik, oso garrantzi handikoa da pertsona horiek alkohola eta drogak ez kontsumitzea. Fase akutu batean, tratamendua utzita, eta, galnera, halakoak harritzen: benetako arriskua da hori.

Arreta sozioanitario on batekin saihestu daitezke gehienak...

Zalantzarik gabe. Biolentziarik gabeko egoerara ez gara inoiz ere iritsiko, beti egon daitezke kasuren bat. Baina tratamendua hobetuta, arta hobetzeko balabideak jarri, asko hobetu daitezke. Eta argi utzi behar da: pertsona horietako gehienak ez dira arriskutsuak.

Buruko gaiztak eta portaera biolentoak uztartu berean jartzeko direnean sortzen den beste galderara arazotsua izaten da zenbateraino erabiltzen diren eritasun horiek hainbat portaera gaizto eta desegoki zuritzea...

Pertsona guztiak gara, printzipioz, gure ekintza guztien erantzule. Salbuespen dira beren gaixotasunaren ondorioz portaera biolento bat izan duten pertsonak: ba, esaterako, eldarnio bati erantzun diotelako. Gerta daitezke, halakoen ondorioz, pertsona bat egiten dituenen erantzule ez izatea: pertsona horien tokia ez da kartzela, eta horientzako pentsatuta daude, hain justu, auzitegi psikiatrikoko unitateak. Pertsona horiek inputatu ezinak dira, arduraren penarik ezin zale egotzi, baina segurtasun neurri bat bai; batetik, gizartearen eragin ditzaizkaten delituez babesteko, eta, bestetik, pertsonak errehabilitatzeko ahalgina egin behar delako beti. Demostatu egin beharko da hori, ordea, pertsona hori ez zela libre bere portaera hautatzeko.

**Auzitegietan dahirdueten pertinen artean aski ikuskera ezberdinak izaten dira usu halakoe-
tan. Eta akusatuen defentsen es-
trategia sarri izaten da haien
portaera buruko nahasmendu
baten ondorio dela esatea...**

Ez da erraza. Izan ere, epaileak ez du galdetzen akusatutako buruko gaixotasun bat duen; galdetzen du epaitzen duten jazoera gertatu zenean pertsona hori gaixotasun horren mende zegoen; eta hori argitzea oso zaila da. Ezin da esan, esaterako, pertsona bat eskizofrenikoa denik; hori pertsona estigmatizatzea da. Inor ez da eskizofrenikoa berean eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan... Eta auzitegietako pertutek beti a posteriori egiten dituzte ikerketak. Oso zaila da hori. Epaitegi-arentzat dahirdueten pertutek bakarrik ez dute, gainera, halakoe-

«Bakartuta dagoenak ingurukoaren goxotasuna falta du, eta tratamenduari abikildetzea zailagoa da horrela»

«Fase akutuan, tratamendua utzita, eta, gainera, halakoak [drogak, alkohola...] hartzen: benetako arriskua da hori»

«Gaizkia bada, jakina. Buruko eritasunik gabeko pertsonen arrazoiak gainditzen duten portaerak izan ditzakete»

«Tratu txarrak ematen dituzten gizon gehienek ez dute buruko nahasmendurik; %10 bat egon daiteke nahastuta»

tan esku hartzen: abokatuek bestelako peritu pribatuek ere jo dezakete. Ordainpekoak izaten dira horiek; defentsaren interesak defendatuko dituzte. Moralgabeak direla esan nahi du? Lan negatibo bat egingo dutela? Ez. Baina eragina izaten du.

Krudelkeria handiko gertaerak ez dira, beraz, buruko nahasmenduen lotu behar. Ados. Zer-ribuz jardun behar da orduan? Gaizkia da hori?

Gaizkia bada, jakina. Pjuri Zim-bardok berriki, 2006an, agerian utzi du *Lucifer* efektua liburuan. Argi utzi du buruko eritasunik ga-beko pertsonen arrazoiak guztiz gainditzen duten portaerak izan ditzaketela. Adibideak asko dira: eraso terroristak egiten dituzten pertsonak, herri eta hirietako fes-tetan sexu erasoak egiten dituzte-nak, sarraskiak egiten dituzte-nak, Ruandako hilketen egileak... Gehienek ez dute buruko nahas-mendurik. Zergatik jardun dute horrela? Fanatismoa egon daiteke

atzean, edo ingurukoak mende-an hartzeko nahia; baina ez dago diagnostiko klinikorik.

Sexu erasoak eta bikotekideen aurkako tratu txarrak eragiten dituzten pertsonak tratatzeko moduez ere mintzatuko zarete ikastaroan. Ezin daiteke gaizki ulertu? Pentsa daiteke, buruko gaiztezi buruzko ikastaro batean sartuta, haien erantzukizuna apaltzea egin nahi dela, ezta?

Arrazoi duzu, gai arazotsua da. Hain justu, horrexegatik gai hori lantzen duten bi hitzaldiak arras-saldea eraman ditugu, buruko gaiztegiatik bereizteko. Baina beti salatu behar da pertsonen errehabilitazioa: egin duten deli-tua egin dutela ere. Gizarteak, gai-nera, babestu egin behar da, kar-tzelatik ateratzen direnean delitu gehiago egin ez dezaten. Tratu txarrak ematen dituzten gizon

gehienek ez dute buruko nahasmendurik; %10en bat egon daiteke nahas-tuta, eta horiek izango li-rateke, demostratuko balitz, inputatu gabe gerta daitezkeenak. Baina sal-buespenak dira. Gai-ne-rakeen portaeraren atze-an matxismoa dago, je-loskortasuna, emozioak adierazteko zailtasuna... Nolanbait ere, gabezia psi-kologikoak dituzte ho-riek; baina, tira, gabezia psikologikoak pertsona askok ditugu.

Zeuk onduta da indarke-ria matxista jasaten du-ten biktimen arrisku egoera ebaluatuko Er-taintzak darabilen tresna, ho-gei aldagaiz osatua. 2007koa da. Zer bilera izan du ordutik?

Helburua zen salaketa bat jaso orduko horren gaineko arrisku maila ebaluatzea, eta horren arabera-ko babes neurriak lehenbailehen hartzea: kasuaren gaineko proze-dura judiziala abiatu aurretik. Bi-dean zer ikasi dugun? Hasieran arrisku handiko kasu asko ager-zen zitzaizkigun, eta gero ez ze-tozela bat errealtatearekin. Eska-la findu egin dugu, doitu.

Aldagai horietan bakar batek egiten die erreferentzia buruko gaizteki. Hala ere, gizon batek hil-tzen du andrea, eta oraindik ai-patzen da «erokeria»...

Zaila da horrelakoak errotik erauzea. Jendea harritu egiten da oraindik, adibidez, jakiten duene-an mediku gaitz bat, familia Opus Dei erakundetik gertuko duena, kapaz izan dela Nagore Lafage hiltzeko, hil zuen krudelkeria guztiarekin, gainera... «Ez da normala», esaten dugu.



Jendetza handia bildu zen atzo Iruñean, festetan gertatu diren sexu erasoak salatzeko. INIGO URIZ / ARGAGAZI PRESS

Gizon bat atxilotu dute emakumeen aldagietan grabaketak egitea egotzita

Barakaldoko eta Sestaoko kirolegietan grabatzea egotzi diote. Beste kirolegi batzuetan ere grabatu izanaren susmoa du Segurtasun Sailak

Ane Ubegun Golekoetxea
Donostia

Gizon bat atxilotu dute Sestaon (Bizkaia), sakelakoarekin bertako eta Barakaldoko (Bizkaia) kirolegietako emakumeen alda-gietan grabazioak egitea leporatu-ta. Segurtasun Sailak jakinarazi du susmoa duela Portugalet, Ba-sauri, Arrigorriaga eta Zorrotzako (Bizkaia) kirolegietan ere gauza bera egin duela. Ertzaintza aperi-lean hasi zen kasua ikertzen, Ba-rakaldoko kirolegiko bi erabil-tzailek salaketa jarri baitzuten. Ekainean ere, Sestaoko kirolegiko langile bat ohar-tu zen gizon bat zebilela emakumeen aldagietan. Poliziak sakelakoa eta USB me-moria bat antzematen zizkion. Etxea miatu ondoren, ordenagai-lu eramangarri bat, beste hiru te-lefono eta beste hainbat euskarri kendu zizkion.

Ez da izan aste honetan jakin den eraso sexistak bakarra: sanfer-minetan II emakume salatu dute gehiegikeriak egin dizketela, eta kopurua handituz doa, hamabi baitira orain; beste gizon bat atxilotu dute ukituak egitea egotzita, larderia eta indarkeria erabiltita. Akusatua Angelu errugbi taldeko

jokalaria da. Iruñeko Udalak adie-razi du eraso sexistei aurre egiteko laguntza eskaintzen jarraituko duela: «guztik dugu segurtasu-nez, askatasunean eta berdintasunean festak gozatzeko eskubi-dea». Nafarroako Gobernuak adierazi du jarrera «aktiboa» mantenduko duela eta emaku-

meen aurkako eraso guztiak sala-tuko dituela. Mugimendu femi-nistak antolatutako manifestazio-ak jendetza handia bildu zuen atzo.

Beste gizon bat atxilotu dute Gasteizen, bere ama jotzea leporatuta. Biktimia hiriburuko ospitalera eraman dute. Eraso-tzaileak ukatu egin du eraso.

Aviso / Abisua

IBERDOLA DISTRIBUCION ELECTRICA, S.A.U.

Para seguir mejorando la calidad de servicio, estamos trabajando en nuestras instalaciones. Por este motivo, nos vemos obligados a interrumpir temporalmente el suministro eléctrico.

Cure zerbitzuaren kalitatea hobetzen jarraitzeko, gure instalazioetan lanean ari gara. Horregatik, elektrizitate hornidura aldi baterako eten behar dugu.

ZONAS AFECTADAS / UKITUTAKO EREMUAK:	
Eguna: uztailak 17 de julio Hora / Ordua 9:30 - 11:50 C/ Gabika 10, 12, 14 a 20, 22, 23, 24, 26, 31, 32, 38; ikazurietas 5, 8, 13, 93	ERENO
Eguna: uztailak 18 de julio Hora / Ordua 9:00 - 12:00 C/ Aría Encimera 16	BALMADEA
Eguna: uztailak 18 de julio Hora / Ordua 9:30 - 11:00 C/ Totorika Auzoa 1 a 9, 11, 14	MUNITIBAR ARBATZEGI GERRIKATZ - MUNITIBAR
Eguna: uztailak 19 de julio Hora / Ordua 11:00 - 14:00 C/ Aldaka Kalea 1, 3; Gerrickatz 13; Herriko Plaza 1 a 6; Munitibar 1, 2, 4, 6, 8, 10, 14 a 20, 22, 23, 24, 32, 33 a 36, 39, 40; Olabarri Kalea 1, 2, 3; Totorika Auzoa 25 a 28, 210	MUXIKA
Eguna: uztailak 20 de julio Hora / Ordua 12:00 - 13:30 C/ Kurtzerio 11, 14, 16, 20, 22, 24	

Si el trabajo finalizara antes de la hora indicada, restableceremos el suministro de forma inmediata y sin previo aviso.
Oria adierazita ordua baino lehen bukatuko bagenu, berehala itzuliko genuke elektrizitatea, ohararazi gabe.
Disculpas las molestias / Barkatu eguzpenak.